

## BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

2026

*EBAZPENA, 2013ko martxoaren 27koa, Araubide Juridikoaren sailburuordearena. Honen bidez, argitara ematen da Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Bitariko Lankidetzaren Akordioa, ekainaren 28ko 14/2012 Legearen 3. eta 7. artikuluen ingurukoa (14/2012 Legea, genero-arrazoiengatik inor ez baztertzeari eta transexualen eskubideak aitortzeari buruzkoa).*

Konstituzio Auzitegiaren urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoaren 33.2 artikuluan aurreikusten den erabakia hartu ondoren, eta artikuluko horren c) letran ezarritakoarekin bat, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzaren Akordioa, genero-arrazoiengatik inor ez baztertzeari eta transexualen eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legeari buruzkoa, zein ebazpen honen eranskin modura agertzen baita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko martxoaren 27a.

Araubide Juridikoaren sailburuordea,  
SABINO TORRE DÍEZ.

## ERANSKINA

ESTATUKO ADMINISTRAZIOAK ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO  
ADMINISTRAZIOAK OSATUTAKO BITARIKO LANKIDETZA BATZORDEAAKORDIOA, ESTATUKO ADMINISTRAZIOAK ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO  
ADMINISTRAZIOAK OSATUTAKO BITARIKO LANKIDETZA BATZORDEARENA,  
EKAINAREN 28KO 14/2012 LEGEAREN 3. ETA 7. ARTIKULUEN INGURUKOA  
(14/2012 LEGEA, GENERO-ARRAZOIENGATIK INOR EZ BAZTERTZEARI ETA  
TRANSEXUALEN ESKUBIDEAK AITORTZEARI BURUZKOA)

Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Bitariko Lankidetzak Batzordeak 2013ko martxoaren 13ko bilkuran honako akordio hau hitzartu du:

1.– Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Bitariko Lankidetzak Batzordearen 2012ko irailaren 24ko Akordioa bete nahirik osatutako lantaldeak genero-arrazoiengatik inor ez baztertzeari eta transexualen eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legearen inguruan sortutako eskumen-desadostasunak aztertu eta horiei buruzko konponbide-proposamen bat aurkezteko egindako negoziaketekin bat etorriz, bi alderdiek uste dute konponduta daudela desadostasun horiek, konpromiso hauetan oinarrituta:

– Bi alderdiak bat datoz 14/2012 Legearen 3. eta 7. artikulua interpretatzeko eran, transexualaren aitortzea legearen ondorioetarako soilik ulertzen dela uste dutelako, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen-eremuan, eta horrek ez diola eragiten interesdunaren izaera juridikoari, harik eta erregistroko inskripzioa aldatu arte. Inskripzio-aldaketa martxoaren 15eko 3/2007 Legeak arautzen du, pertsonen sexuari buruzko aipamenaren erregistro-zuzenketa erregulatzen duenak.

2.– Lortutako akordioa dela-eta, bi alderdiek uste dute akordio honetako ebazpenen inguruan sortutako desadostasunak desagertu egin direla.

3.– Akordio hau Konstituzio Auzitegiari jakinaraztea, eta Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, Konstituzio Auzitegiari buruzko urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoaren 33.2 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

Madril, 2013ko martxoaren 13a.

Ogasun eta Herri Administrazioetako ministroa,  
CRISTÓBAL MONTORO ROMERO.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,  
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.